

Euskal hedabide nagusiak eta espainiar hedabide nagusiak Udaberri Arabiarrean: gatazken jarraipena egiteko bi modu

Annette Unda Endemaño¹, Leire Iturregui Mardaras²

¹UPV/EHUko Kazetaritza Saileko doktorego aurreko ikertzailea,

²UPV/EHUko Kazetaritza Saileko irakasle agregatua

Udaberri Arabiarra gatazken jarraipenean mugarrietako bat izan da, momentu hartan berritzaileak ziren sare sozialek ikuspegi berri bat eskaini baitzioten informazio-jarraipenari eta aldaketa nabaria ekarri zuen kazetarien lan egiteko eran. Horrek guztiak eta hedabideek 2008. urtean jasandako krisiak eragin zuzena izan zuten hedabideen aurrekontuetan eta, beraz, kazetarien lan-baldintzetan. Testuinguru hori abiapuntu izanda, lan honek euskal hedabide nagusiek eta espainiar hedabide nagusiek egindako Udaberri Arabiarraren jarraipen mota ikertzeaz gain, gertera horien jarraipena egin zuten kazetarien lan-baldintzak aztertzea du helburu. Analisia egiteko, hedabide bakoitzeko nazioarteko saileko arduradunak identifikatu eta elkarrizketatu dira. Emaita nagusien artean, nazioarteko gaietan eta bereziki gatazkei buruzko gaietan *breaking news*-en mendekotasun nagusia, kazetari freelance edo autonomoen presentzia nabaria eta lan-baldintza eskasak nabarmentzen dira, agerian utzita egoera horrek informazioan bertan eta profesionalen segurtasun-baldintzetan izan ditzazkeen inplikazioak.

GAKO-HITZAK: Udaberri Arabiarra · Gatazka-kazetaritza · Lan-baldintzak · Freelance.

The main Basque media and the main Spanish media in the Arab Spring: two different types of conflict coverage

The Arab Spring has been one of the milestones in monitoring conflicts, as social networks, at that time innovative, offered a new approach to news monitoring and marked a significant change in the way journalists work. All this, together with the crisis suffered by the media in 2008, had a direct impact on media budgets and, therefore, on the working conditions of journalists. Based on this context, this paper aims to investigate the type of monitoring of the Arab Spring carried out by the main Basque and Spanish media, as well as the working conditions of the journalists who monitored these events. To carry out the analysis, the heads of the international department of each media have been identified and interviewed. Among the main results are the majority dependence of breaking news on international issues and especially on conflicts, the prominent presence of freelance or freelance journalists and the precarious working conditions, highlighting the implications that this situation can have on the information itself and on the safety conditions of professionals.

KEY WORDS: Arab Spring · Conflict journalism · Working conditions · Freelance.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5068>

Jasotze-data: 2023-07-27 *Onartze-data:* 2023-10-16

1. Sarrera

Udaberri Arabiarraren suspertzetik 12 urte pasa diren honetan, sare sozialak, gatazken jarraipena egiteko erreminta «berri» bat izan zirenak, gaur egun, kazetarien egunerokotasunean parte dira. Izan ere, 2011. urtean hasitako Ekialde Hurbileko mugimendu haiek bete-betean harrapatu zituen Twitterren egonkortzeak (Marta eta Idiakez, 2014) bai gatazkari berari eta, halaber, haren jarraipenari beste dimentsio bat emanez (Gallardo eta De la Quintana, 2012).

Aldaketa horiek eragina izan zuten bere momentuan erredakzioetako antolakuntzan (Díaz Noci *et al.*, 2010) eta era berean, jarraipen orotan. Zehazki, gatazka-guneetako lan-errutinetan eta baldintzetan: kazetarien praktika eta jarduna zeharo aldatu zituzten (Harris eta Williams, 2018). Horretaz gain, kazetariak errutina berri horietara moldatzeko bereganatu beharreko gaitasunak ere beharrian bihurtzen hasi ziren eta gaur egun ere hala izaten jarraitzen dute (Unda, Iturregui eta Cantalapiedra, 2022).

Eboluzio horrek eta hedabideek 2008. urtean jasandako krisiak eragin zuzena izan dute kazetarien lan-baldintzetan. Lehenago espainiar hedabide nagusiek nazioarteko informazioa gehienbat korrespontsalen bidez jarraitzen bazuten ere (Moreno, 2010), espainiar kazetarien baldintzak prekarizatzen hasi ziren kazetari freelanceen figuraren agerpenaren bidez (Martínez eta Durántez, 2019). Zehazki, Udaberri Arabiarraren barnean jazotako Siriako Gerra naziaortean «freelanceen gerra» izenez ezagutua izan da (Harris eta Williams, 2018).

Bestalde, akademian, nahiz eta kazetarien lan-baldintzak zuzenean aztertzen dituzten ekarpenak nabariak diren, zehazki gatazka-kazetarien egoera aztertzen duten lanak urriak dira. Hala ere, badaude ekarpen garrantzitsuak. WJS (Worlds of Journalism Studies) proiektuak, esaterako, gai honetan oinarritzen du ikuspuntua, kazetaritza-kultura oinarri izanik helburu hauek ditu: batetik, kazetaritza-ikertzaileei, hedabideetako profesionaleri eta politikak formulatzeaz arduratzen direnei baliabide ezberdinak eskainiz laguntzea. Bestetik, aldiz, munduaren ikuspegi-aldaketak, kazetarien iritzi profesionaletan gertatzen ari diren gorabeherak eta kazetariak dituzten lan-baldintzak zein mugak hobeto ulertzeko funtzioa du. Proiektu horretan, beraz, 110 herrialdek baino gehiagok parte hartzen dute gaur egun.

Walters, Warren eta Dobbiek (2006) IFJko parte diren 38 herrialdeetako kazetarien baldintzak aztertzen dituzte. GroBhans eta Rauek (2009) europar enpresa- eta ekonomia-kazetarien lan-baldintzak eta haien asebetetze-maila aztertzen dute sakoneko elkarriketa eta eduki-analisi bidez. Hala ere, kazetarien lan-baldintzen gaia modu orokorrean ikertu beharrean, gehienbat kasuko ikerketa bidez, hau da, herrialdez herrialde ikertu da: Australiako kasua (Cushion, 2007), Austriako kasua (Hanusch, 2015; Hesmondhalgh, 2015), Afrikako kasua (Baglo, 2008) eta Kolonbiako kasua (2020), gehienbat metodo kualitatibo bidez, besteak beste. Espainian, Fernándezek (1997) espainiar kazetariak lan-baldintzen inguruan dituzten iritziak aztertzen ditu elkarriketa bidez. Bestalde, badira espainiar kazetarien lan-egoera profesionala zein ekonomikoa aztertzen dituzten lanak, hedabideek krisiaren ostean, inkesta bidez burututakoak (Roses, 2011; Soengas, Rodríguez eta Abuín,

2014). EAEn, aldiz, Cantalapiedrak, Cocak eta Bezunarteak (2000) euskal hedabide nagusientzat lan egiten zuten kazetarien profila eta lan-baldintzak aztertu dituzte.

Gatazka-kazetaritzan zentratuz gero, ekarpen gutxiago aurkitu daitezke. Allan eta Zelizerrek (2004) gatazka-kazetaritzaren etorkizunaz eta lanean antzemandako aldaketez hitz egiten dute. Bestalde, Tumber eta Websterrek (2006) gerren aldaketak kazetari horien ofizioan izan duen eragina aztertzen dute, sakoneko elkarrizketa bidez. Gainera, horietariko autore batek, Tumberrek (2006), profesional horien lanak haien bizitzan zein lanean zer-nolako inpaktua duen aztertzen du. Lohner, Neverla eta Banjacek (2017) MCoDEM (Media, Conflict and Democratization) europar proiektuaren barruan demokratizazio-bidean dauden herrialdeetako gatazken jarraipena egiten duten kazetarien lan-baldintzak aztertzen dituzte, sakoneko elkarrizketa bidez ere bai. Asal, *et. al.*ek (2018) gatazkan den herrialde bakoitzeko politikak kazetarien askatasunean eta, era berean, lan-baldintzetan duen eragina aztertzen dute, zenbait GKEk argitaratutako datuen bidez. Lehenago aipatu bezala, gatazka-kazetaritzaren kasuan ere badira kasu espezifikoak aztertzen dituzten lanak: Pakistango kazetarien lan-baldintzak (Lqbal eta Ullah, 2013) edota Mexikoko kazetarien baldintzak (Hughes, Márquez eta Ramírez, 2016).

Espanian, ofizioaren inguruko lan edo eleberri biografikoak argitaratu badira ere, gutxi dira profesio honetako lan-baldintzak modu zehatzean aztertzen dituzten lan akademikoak. Iturreguik (2011) Irakeko gerran txertatu gisa lan egin zuten kazetarien lan-baldintzak aztertzen ditu bere tesian, sakoneko elkarrizketekin egindako ikerketa bidez. Gallardo eta De la Quintanak (2012) ofizioaren arriskuak eta lan-prekarietateak deskribatzen dituzte eta Vázquezek (2012) gerra-kazetarien lan-egoera, eta aurre egin beharreko sumisio politiko, ideologiko eta enpresarialaren inguruan hausnartzen du. Unda, Iturregui eta Cantalapiedrak (2022), aldiz, Espainian gatazka-kazetaritzak azken mende eta erdian izan dituen eraldaketa nagusiak eta gaur egun dituen erronkak identifikatzen dituzte, sakoneko elkarrizketa bidez.

2. Helburuak

Ikus daitekeen bezala, espezifikoki gatazka-kazetaritzari eta lan-baldintzei lotutako lanen kopurua murrizta da. Hutsune hori betetze aldera, ikerketa honek aztertu du zer garrantzi eskaintzen dioten EAEn eta Espainian audientzia eta irakurle gehien biltzen duten hedabideek nazioarteko gaiei eta konkretuki gatazkei buruzko gaiei, Udaberri Arabiarrean fokua jarrita. Hemendik aurrera, beraz, jarraipen horretarako erabilitako baliabideak aztertzea da helburua: agentzien erabilera, kazetari freelanceak, berriemaile bereziak, etab. Helburu espezifikoak, beraz, honako hauek dira:

H1: Euskal hedabideek eta espainiar hedabideek nazioarteko eta, bereziki, gatazkei buruzko informazioari eskaintzen dioten garrantzia aztertzea.

H2: Euskal eta espainiar hedabide nagusiek Udaberri Arabiarrean jarraipena egiteko erabili zituzten baliabideak aztertzea: agentziak, kazetari freelanceak, berriemaile bereziak, etab.

H3: Euskal eta espainiar hedabide nagusiek Udaberri Arabiarraren jarraipena egin duten kazetariari eskaini dizkieten lan-baldintzak aztertzea eta haien eboluzioa ikertzea.

3. Gatazka-kazetaritza eta hedabideetako lan-baldintzak

Azken urteetan kazetari freelanceen igoera nabarmena izan bada ere (Massey & Elmore, 2018), espainiar hedabideetako azken datuen arabera, azken bost urteetan kazetari freelanceen presentzia handituz joan da: 73.500ekoa da kazetari autonomoen zifra Espainian (Puerta, 2022). Hedabideek, beraz, gehienetan «piezakako kontratuak» ezartzen dituzte kazetari hauekin, eskainitako lan bakoitzari prezio konkretu bat ezarriz. Hau da, piezako prezioen izaerak mugatzen du kazetari freelance baten lanaren balioa. Izan ere, kazetari autonomoen lan-baldintzek ez dute hoberantz egin azken urteetan. CNTk 2017an eta 2018an argitaratutako txostenen arabera, kazetari freelanceen lana ez da konpromiso aldetik ezta ekonomikoki ere behar bezala baloratzen. Konpromiso aldetik, informean aipatzen denez, gero eta gutxiago erantzuten da kazetarien posta elektronikora edo, bestalde, gero eta handiagoa da agentzietatik datorren informazioarekin kolaboratzaileen piezak ordezkatzeko joera (CNT, 2017; CNT, 2018).

Horretaz gain, Salamonen (2018) arabera, piezako kontratuen bidez, hedabideek kolaboratzaile independenteen kontrola eta jabetza bermatzen dute, irabazi ekonomiko gehiago lortuz. Lan-eredu horren alde eginez, kazetari hauen lanaren balioa gutxitzeaz gain, askotan, gainontzeko hedabideekin lan egiteko trabak azaltzen dira, eta, beraz, aparteko diru-sarrerak lortzeko gaitasuna ere mugatzen da.

2021ean APMk (Madrileko Kazetarien Erakundeak) argitaratutako datuen arabera, kazetari autonomoen % 69k «lan-egoerak bultzatuta» egin zuen freelance gisa lan egitearen aldeko hautua. Profesionalen % 31k, aldiz, erabaki propioz egin zuen (APM, 2021). Mathisenen (2019) arabera, hortaz, kazetaria freelancea izateak, alde batetik, autonomia ematen dio kazetariari, gertaerak kontatzeko orduan marko edo perspektiba erabakitzeke askatasuna baitu. Hala ere, beste alde batetik, nahiz eta zenbait kazetari autonomok lanaren asebetetzea argudiatu, lan gogor eta ezegonkorra da.

Horri lotuta, komunikazioaren industria etengabe aldatzen ari den honetan, akademiak sektorearen desprofesionalizazioa mahai gainean jartzen du, profesional autonomoek hedabide batean kontratatutakoek baino autonomia handiagoz dihardutela argudiatuz. Hala ere, azpimarratzekoa da kazetari autonomoak beren abilezia profesionalen menpe daudela, entregatzen dituzten lanak ez badira kalitate-maila zehatz batera iristen eta ez badituzte editoreen espektatibak betetzen, beharbada ez dute beste lan batzuen eskakizunik jasoko. Gainera, prekarietatea eta zaugarritasuna parez pare bizi dute lan-arloan: diru-sarreraren segurtasunik eza pairatzen dute, komunikazio-enpresek betebeharrak gutxiago izango dituzten aldi baterako langileetan inbertitzen baitute (Mathisen, 2017).

3.1. Kazetari freelancea, kolaboratzailea edo autonomo faltsua

Kazetari freelanceak era autonomo batean hainbat hedabiderentzat lan egiten duten kazetariak dira (Argiz, 2006), hau da, zerbitzu propioak hainbat enpresari saltzen dizkieten profesionalak dira epe luzerako kontratu finkorik gabe (Walters, Warren & Dobbie, 2006).

Kazetarien Konbentzio Nazionalaren arabera bi definizio existitzen dira kazetaritzaren ofizioan. Alde batetik, titularrak daude eta, beste alde batetik, freelanceak. Lehenak hilabeteko soldata jasotzen dute eta lantaldearen parte dira; bigarrenak aldiz, piezako prezioen arabera kobratzen dute eta kontziente dira beren lanaren jarraitutasunik ezaz (Aubert, 2007, 2. or.).

Bestalde, kazetari autonomoa izatearen hautua, batzuetan, aukera propioz hartzen dute kazetariak eta beste batzuetan, aldiz, lan-aukera urriak bultzatuta (Argiz, 2006). Izan ere, Deuze eta Witschgek (2018) prekaritatea erredakzio garaikideetan lan egiten duten profesionalen lan-esperientzia defini dezakeen adierazpen bihurtu dela diote. Erredakzioetan, badaude lan egonkorra duten kazetariak (onura eta babes desberdinekin). Horiek erredakzio berean lan egiten dute lanaldi partzialeko langileekin, langile autonomoekin, denbora zehatz baterako kontratua dutenekin edota haien lanarengatik ordainsaririk jasotzen ez dutenekin batera.

Lan-eremuan, beraz, kazetaria freelancearen figura langile atipiko gisa defini daiteke. Ohiz kanpoko langile lanaldi osorik edo lan iraunkorrik ez duten horiei esaten zaie. Definizio horren barnean sartzen dira, besteak beste, epe motzeko kontratudunak, azpikontratututako langileak, aldi baterakoak eta freelance edo autonomoak (Walters, Warren eta Dobbie, 2006).

Gatazka-kazetarien kasuan, profesional freelanceak zenbait kategoriatan sailkatu daitezke, eta horrek eragina du hartzen dituzten arriskueta. Ustekoa da ofizioan hasiberriak diren kazetariak direla, «hala ere, gatazka-berriemile autonomoak forma eta tamaina askotakoak dira. Hedabideekin duten harremanaren izaeragatik bereiz daitezke; batzuek kontratua bermatua dute haiekin; beste batzuek, bermerik gabeko harremana dute» (Harris eta Williams, 2018, 60. or.).

Hedabidearekin duten harreman horri jarraikiz, kazetari freelancea eta kolaboratzailea hedabideko plantillaren parte ez diren bi figura dira, hala ere, «bien arteko desberdintasuna zera da, kazetari freelanceak hedabide batentzat baino gehiagorentzat lan egiten du eta kolaboratzaileak, aldiz, bakar batentzat, autonomo edo autonomo faltsu bezala» (Gutierrez, 2021, 64-65. or.).

Autonomo faltsuak, beraz, «Autonomoen Erregimen Berezian» alta emanda dauden profesionalak izan arren, praktikan plantillaren parte diren langileen lan antzekoak edota berdinak egiten dituzten profesionalak izango lirateke (Gutierrez, 2021), baina, kontuan izanda ikuspuntu legaletik autonomo bezala erregistratuta daudela. Horrek dakar hedabideak Gizarte Segurantzako gastuak ekiditea, eta bide beretik, langilearen egoera gero eta gehiago prekarizatzea.

4. Metodologia

Helburuak betetzeari begira, ikerta hau teknika kualitatibo bidez burutu da eta erabilitako teknika sakoneko elkarrizketa da, gatazka-kazetaritzaren inguruan kokatzen diren aurretiko ikerketa akademiko batzuek egin duten bezala (Lavín de las Heras, 2015; Del Paso, 2016; Unda, Iturregui eta Cantalapiedra, 2022). Bere horretan, sakoneko elkarrizketa teknika aproposa dela ondorioztatu da hedabide bakoitzak Udaberri Arabiarrean zehar eta gaur egun nazioarteko eta konkretuki gatazka- informazioari dagokionez zer motatako jarraipena egiten duen jakiteko, besteak beste, elkarrizketatutako subjektu bakoitzak bere «mundua» zer eratarik ikusten duen eta, batez ere, iraganeko eta gaur egungo errutinei buruzko informazioa lehen eskutik jasotzeko (Taylor eta Bogdan, 1987).

Lehenik eta behin, 2011. urteko (Udaberri Arabiarrean suspertze-urtea) AIMCko audientzia-datuak hartu dira aintzat aztertuko diren hedabideak aukeratzeko. Honako hauek dira, beraz, irakurle gehien biltzen duten hedabideak: Espainian, *El País*, *La Vanguardia* eta *El Mundo* nagusitzen dira. EAEn, *El Correo*, *Deia*, *Gara* eta *Berria* (AIMC, 2011). Horetaz gain, kasu bietako hedabide publikoa ere gehitu da laginera, audientzia handia izateaz gain, hedabide publikoek gatazka-informazioari dagokionez duten lan egiteko era ikertzea aberasgarria kontsidera daitekeelako.

Behin hedabideak identifikatuta, Udaberri Arabiarrean zehar hedabide bakoitzean nazioarteko saileko buruak izandakoak lokalizatu eta identifikatu dira. Hau da, guztira 9 elkarrizketa egin dira, bat hedabide bakoitzeko. Elkarrizketak 2019. urtearen bukaeratik 2021. urtera bitartean egin dira.

Elkarrizketatutako subjektu bakoitzaren anonimotasuna babeste aldera, kode bat ezarri zaio bakoitzari atribuzioak erabiltzeko orduan izendatzeko:

1. taula. Elkarrizketatutakoen profilak.

Kod.	Hedabidea	Generoa
K1	<i>El Mundo</i>	Emakumea
K2	<i>El País</i>	Gizona
K3	EITB	Gizona
K4	<i>El Correo</i>	Emakumea
K5	<i>La Vanguardia</i>	Gizona
K6	RTVE	Gizona
K7	<i>Gara</i>	Gizona
K8	<i>Berria</i>	Gizona
K9	<i>Deia</i>	Gizona

Iturria: norberak egina.

Bestalde, lan honetarako erabilitako metodoek Euskal Herriko Unibertsitateko GIEBren (Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordea) oniritzia jaso dute.

5. Emaidzak

5.1. Nazioarteko informazioa eta gatazkei buruzko informazioa euskal eta espainiar hedabideetan

Euskal hedabideetan, nazioarteko informazioa bigarren plano batean aurkitzen dela aipatzen dute hedabide gehienek, batez ere informazio lokalean jartzen baitute fokua: «Nazioarteko gaiak bigarren planoko paper bat jokatzen dute. Guk, hedabide bezala, lerro informatiboa arlo lokalean mantentzen dugu» (K9, komunikazio pertsonala). Horretaz gain, nazioarteko gaietan ere bereizketak egiten direla dio K9k:

1998. urtean egiten genuen gauza bat da eta baita orain ere. Bi bloketan banatzen dugu infomazioa, Europar Batasuneko gaiak eta bestelakoak. Guk hurbiltasun-kriterio bat ezartzen dugu, irakurlearengan eragin gehiago izan dezakeen informazioari garrantzia gehiago ematen diogu (K9, komunikazio pertsonala).

Hemendik at, batzuetan nazioarteari dagokion informazioa *breaking news*-en menpe egoten dela aipatzen du K4k: «Hedabidearentzat bostgarren maila batean dago nazioarteko informazioa. Oso gertaera “esplosiboa” izan behar du, interes orokorrekoa» (K4, komunikazio pertsonala).

Garak eta *Berriak*, nahiz eta ez den orrialde gehien hartzen duen informazioa, «dezente» leku hartzen dutela aipatzen dute. *Gararen* kasuan, adibidez, garai batean baino toki gehiago duela dio K7k. Hala ere, kasu bietan «epeka» joaten den zerbait izaten dela diote, «pikuak» egoten baitira.

Bestalde, EITBk eztabaida ugari izan dituela honen inguruan aipatzen du K3k:

EITBren fundazio-oinarrietan hedabide generalista bat da, bokazio nazionalekoa. Hau da. Euskal Herriarentzat informazioa egiten duen hedabide generalista bat. Horrek EITB barruan aurkakoak izan ditu, jende askok pentsatu izan duelako EITBk Euskal Herriari eta gai lokalei begiratu behar dien hedabide bat izan behar duela (K3, komunikazio pertsonala).

Horri lotuta, nazioarteko gaien jarraipena egiten duten kazetariak gai horrekin «borroka» etengabea dutela dio: «Gai batzuk oso garrantzitsuak dira, guk informazio generalista egiten dugu, ez gara informatibo lokal bat, beraz, behar duen inportantzia eman behar diegu gai sorta hauei» (K3, komunikazio pertsonala).

Espainian nagusi diren hedabideak, aldiz, guztiak «harro» sentitzen dira nazioarteko informazioaren jarraipenarekin:

RTVE, uste dut, diferentzia handiarekin, nazioarteko informazio gehien ematen duen hedabidea dela. Bestalde, *El Paíseko* nazioarteko saileko arduradunak nazioarteko informazioa betidanik hedabidearen «ezaugarri esanguratsuenetariko bat» izan dela dio: «Egunkaria existitzen denetik nazioartearekin irekitzen dugu» (K6, komunikazio pertsonala).

Horretaz gain, euskal hedabideen kasuan gertatzen den bezala, nazioarteko informazioa «pikuak» edota «krisiak» daudenean asko nabarmentzen dela dio K5ek. Halakoetan, istorioaren «background»-a kontatzearen garrantzia azpimarratzen du K5ek: «Saiatzen gara lekuan bertan begiak edukitzean, testuinguru osoa kontatu dezaten» (K5, komunikazio pertsonala). K1ek, *El Mundoko* nazioarteko saileko arduradunak, Espainian informazio honen inguruan beti «borroka» bat egon dela dio, ez baitago nazioarteko informazioa egiteko bokaziorik. Hala ere, nazioartearen jarraipena egiten duten kazetarien «maila ona» azpimarratzen du.

Bestalde, konkretuki gatazka-informazioari buruz hitz egiteko orduan, EAEko hedabide nagusiek gatazken inguruko jarraipena modu desberdinean baloratzen dute. Zehazki Udaberri Arabiarri buruzko informazioak *Berria* eta *Gara* garrantzi handia izan zuela diote nazioarteko saileko arduradunek. Horretaz gain, K8k dio altxamendu horien ostean Ekialde Hurbilari buruzko informazioek «garrantzia» bereganatu dutela:

Lehenago Ekialde Hurbila gehiago zen Israel Palestina. Matxinada horien ondorioz Ekialde Hurbila gai bat bihurtu zen. Hasieran hasi ziren gerra batzuk ez genituenak ondo ulertzen. Gerora, Ekialde Hurbila sutan zegoen eremu bat bihurtu zen, eta errelebantzia gehiago hartu zuen: handitu egin zen (K8, komunikazio pertsonala).

EITBk, *El Correo* eta *Deia*, aldiz, gaiak eskaintzen dioten tartea «gatazkaren arabera» dela diote. Horrek zerikusia du lehenago aipatutako *breaking news* horiek baldintzatzen duten informazioarekin:

Nik nazioarteko informazioburu bezala esango nizuke niretzat oso informazio garrantzitsua dela, baina gero kriterio editorial batzuekin eguneroko albisteetara eramaten denean, ez zaio behar bezalako garrantzirik ematen. Oso zaila da gai horiek agendan sartzea (K3, komunikazio pertsonala).

*El Correo*ren kasuan, informazio hauek «ahalegin gehigarri» bat eskatzen dutela dio K4k: «Ekialde Hurbilean, krisi gehienak ez ziren atzo jaito. Denak du historia bat. Beraz, honek badu zailtasun gehigarri bat, zehazki, historia horri guztiari jarraipen bat ematearena» (K4, komunikazio pertsonala).

Espainian nagusi diren hedabideek, aldiz, gatazkei eta konkretuki Udaberri Arabiarri «garrantzi handia» eskaini zieten diote denek. K5ek dio Dorre Bikien atentatuaren ostean jazotako hurrengo nazioarteko gertakari garrantzitsuena izan zela:

Dorre Bikiak erori zirenean, Irak, Afganistan eta abarren inguruan entzuten zen. Herrialde guztiek bidea zabaldu zieten laguntza, finantzaketa, arabiar, musulman eta abarren munduan aritzen ziren institutu guztiei. Hau da, mundua ikasten eta egoera ulertzen saiatzen hasi zen. Inork espero ez zituen mugimenduak izan ziren (K5, komunikazio pertsonala).

«Garrantzi izugarria izan zuen, mundu osoko atentzioa bertan zegoen. Batez ere, hasieran» dio K6k. K1ek Ekialde Hurbileko egoera alda zezakeen zerbait izan zitekeela dio:

Garai hartan dena kateatuta gertatu zen eta, beraz, Ekialde Hurbileko aurpegi osoa alda zezakeela uste zen. Gainera, oso jende ona genuen bertan. Bertatik jarraipena egiten jende oso ona daukazunean, agenda oso ondo markatzen laguntzen dizu. Besteengandik bereizten zara. Apustu bat da (K1, komunikazio pertsonala).

5.2. Udaberri Arabiarraren jarraipena euskal eta espainiar hedabideetan

Hainbat modu daude gatazka baten jarraipena egiteko orduan. Agentziak, berriemaile bereziak, edota lekuan bertan dauden kazetari freelanceak dira besteak beste, ohikoenak. Euskal hedabideen kasuan, *Deiak* esaterako, Udaberri Arabiarraren berri soilik agentzien bidez jaso zuen: «Ez dugu desplazamendu espezifikorik egin zona horretara eta ez dugu kazetari freelanceekin kolaboratu ere» (K9, komunikazio pertsonala).

Gainerako hedabideek korrespontsalen bidez edota kazetari freelanceen bidez egin izan dute Udaberri Arabiarraren jarraipena, agentziez gain. *Berriak*, esaterako, nahiz eta lan gehiena erredakziotik egiten duten (agentzietatik eratorritako informazioaren bidez), noizbehinka tokian bertan dauden kazetariekin ere egiten dutela lan dio K8k:

Kanpoan ibiltzen diren kolaboratzaileak ere badaude, informazioak eskaintzen dituztenak edota guk zehazki galdetzen dieguna. Normalean haiek eskainia izaten da, Ekialde Hurbilean betiere ez dakigu nor dabilen momentu zehatz horretan handik. Hala ere, normalean kolaboratzaileei eskatzen dieguna ez da eguneko notizia bat, baizik eta hango jendearekin egotea, elkarrizketak lortzea, edota gai konkretu bati buruzko erreportaje bat egitea (K8, komunikazio pertsonala).

Garak, Udaberri Arabiarrari jarraipen «handia» egin diola dio K7k; «korrespontsal» finkoak dituztela dioen arren, egunkariak kazetari freelanceekin egiten du lan. EITB eta *El Correoren* kasua, aldiz, desberdina da. Hedabide biek egiten dute lan kazetari berarekin Ekialde Hurbilean. Zehazki, Mikel Ayestaranekin. *El Correoren* kasuan, K4k dio «antzinako erara» mantentzen direla: «Lehengo eran mantentzen gara, korrespontsalen sare bat dugu, Espainiako hedabide gehienekin alderatuz gero, parekoa dena. Ekialde Hurbilean Mikel Ayestaran dugu eta EITB eta Vocento talde osoarekin banatzen dugu» (K4, komunikazio pertsonala).

EITB Udaberri Arabiarrean zehar «asko mugitu zela» dio K3k: «Gogoratzen dut Libiako iraultza, zuzenekoak egiten egon ginela bi aldetik, Tripoli aldetik eta Bengazitik. Hori nik uste dut oso telebista gutxik egin zutela, Libiako iraultza kontatu bi puntuetatik eta bi kazetarirekin zuzenean» (K3, komunikazio pertsonala). Horretaz gain, berriemaile bereziak ere bidali zituztela dio K3k.

Espainiar hedabideek, RTVEk esaterako, ez dute inoiz freelanceekin lanik egin Udaberri Arabiarrean zehar ezta gainerako jarraipenetan ere. Korrespontsal finkoak eta berriemaile bereziekin funtzionatzen dute «hedabide publikoaren politika» horrelakoa baita, K6ren arabera.

La Vanguardia eta *El Paísek*, «denetarikoa baliabideak» erabili zituztela diote nazioarteko saileko arduradun biek. Hau da, bai *El Paísen* kasuan zein *La Vanguardiaren* kasuan, Ekialde Hurbilean zehar korrespontsal finkoak izateaz

gain, noizbehinka kazetari freelanceekin ere lan egin zutela dio K5ek. *El Mundon*, aldiz, «freelanceengandik laguntza handia» jaso zutela dio K1ek, Ekialde Hurbilean zegoen korrespontsal finkoaz gain.

Azpitarratzekoa da Udaberri Arabiarraren jarraipena soilik agentzia bidez edota kazetari freelanceen bidez egitearen hautu ororen atzean arrazoi ekonomikoak daudela tarteko, kasu guztietan: «Arrazoa beti da ekonomikoa. Pertsona bat tokian bertan jarraipen espezializatu bat egiten mantentzea oso garestia da» (K1, komunikazio pertsonala).

5.3. Euskal zein espainiar hedabide nagusientzat Udaberri Arabiarraren jarraipena egin zuten kazetarien lan-baldintzak eta haien eboluzioa

Aipatu bezala, euskal hedabideetan ere, bereziki, *Gara* eta *Berriaren* kasuan, hauek azpitarratu duten bezala, Udaberri Arabiarreko gatazka-guneetan korrespontsalik ez izateko erabakia guztiz ekonomikoa da: «Ez da inoiz planteatu ere egin» (K8, komunikazio pertsonala).

Hori dela eta, piezaz piezako kontratuak ezartzen dituzte kazetari freelanceekin: «Tarifak ez dira handiak, alegia, txikiak dira. Berez, gehiago ordaindu beharko litzateke. Normalean haiei esaten zaie: hauek dira guk eskaini ahal ditugun baldintzak» (K8, komunikazio pertsonala).

Bestalde, bai *Garak* zein *Berriak*, tarifak «izoztu» egin direla diote: «Guk ez ditugu prezioak igo, baina ez ditugu jaitsi ere. Badakit beste komunikabide askok lehenago asko ordaintzen zutela eta orain izugarri gutxiago. Guk, behintzat, igo ez dugu egin, ezin dugulako, baina jaitsi ere ez» (K7, komunikazio pertsonala).

Deiak, esan bezala, ez du kazetari freelanceekin lanik egin Udaberri Arabiarrean zehar, baina erredakziotik kazetaririk ere ez du bidali jarraipena egitera. Gainera, berriemaile berezi bat bidaltzeko orduan, orokorrean, denbora gutxirako izaten dela dio K9k: «Berriemaile bereziak denbora gutxirako bidaltzen ditugu, denbora luzerako bidaltzea asumitu ezin daitekeen kostu bat delako. Errekurtsio hau martxan jartzeko, informazio espezifikoko produktu bat izan behar du, balio gehigarria duena» (K9, komunikazio pertsonala).

Beste alde batetik, *El Correo* eta EITBren kasua desberdina da. Lehenago esan bezala, bi hedabideek kazetari berarekin egiten dute lan. Izan ere, kazetaria, Mikel Ayestaran, freelancea da, nahiz eta modu «finko» batean lan egin hedabide bientzat. EITBren kasuan, lan-egoera duela urte batzuk aldatu zela dio K3k:

Egon zen momentu bat non EITBk korrespontsaliak zituen estruktura barruan, baldintza guztiekin, hau da, konbenioko baldintza guztiak barne izanik. Gero, hori guztia desagertu zen, eta EITBren erabakia izan zen autonomoak kontratatzea kanpoan. Kontratu horiek kasuan kasu oso ezberdinak dira, adibidez, badaude kontratu batzuk soldata finko batekin, nahiz eta autonomoa izan hilabeteroko soldata bat jasotzen dutenak. Baina gehienak piezako kontratuak dira, edota jardunaldikoak (K3, komunikazio pertsonala).

Hala ere, kontu legalengatik kazetari autonomo hauetariko batzuk laboral bihurtu behar izan zirela dio K3k: «Badaude ja korrespontsalia batzuk, esaterako New York, Kolonbia, etab. kontratu laborekin. Hor aldatu behar izan dira gauzak: dietak, gastuak, ordaintzea, etab. Hori EITBk kubritzen du eta baldintza egonkorretan kontratatu ditu hainbat korrespontsal, kontratu mugagabearekin» (K3, komunikazio pertsonala).

El Correoren kasuan, nahiz eta kazetari freelancea izan, Ayestaraneekin duela 7 bat urte kontratu berezi bat egin zutela aipatzen dute eta Vocento taldeko beste hedabideekin partekatzen dutenez berak igorritako informazioa, gastuak ere denon artean banatzen dituztela dio K4k. Bestalde, baldintzei dagokienez, mantendu ez badira, jaitsi egin direla onartu du K4k.

Izan ere, euskal hedabideetan tarifei dagokienez, idatzian piezako, orrialde baten-gatik 66-100 € bitartean ordaintzen dituzte. Bi orrialdeko piezengatik edo erreportaje luzageago batengatik 116-230 € bitartean. Erreportajeak (argazkiekin) 400-500 € bitartean. Bideoak, aldiz, 700-800 € bitartean eta irratirako kronikak 30 €-tik 50 €-ra.

Espainiar hedabideetan, lehenago aurreratu bezala, kazetari autonomoekin lan egitearen arrazoia ekonomikoa dela diote, EAEko hedabide nagusiek aipatu moduan. Gainera, hedabide guztiak bat datoz gai batean: gatatzka-kazetarien lan-baldintzak okerrantz joan dira azken urteetan: «Lan-baldintzek txarrerantz egin dute, ofizioa bera asko prekarizatu baita» (K6, komunikazio pertsonala).

Bestalde, horrek eragin zuzena dauka kazetari freelanceei hedabideek ordaintzen dizkieten piezen prezioetan ere: «Arazoa da pieza bakoitzeko ordaintzen den diru kopurua oso modu dramatikoan jaitsi dela. Lehen finko batzuk hitzartzen ziren kazetariarekin. Gutxienez dirurik ez galtzeko aukera ematen zuten prezioak ziren (K5, komunikazio pertsonala). Baina, K1en arabera, egoera ekonomikoa okertzen den momentuetan kolaboratzaileak edo kazetari freelanceak dira horretatik txarren irtetzen direnak: «Betidanik, enpresek plantilla-doikuntzak egin nahi dituztenean, hemengo zein nazioarteko kolaboratzaileetan egiten dituzte mozketak, errazagoa delako, arazo sindikal gutxiago daudelako, etab.» (K1, komunikazio pertsonala).

Horretaz gain, bada errepikatzen den figura bat espainiar hedabideetan ere, EAEko hedabide nagusietan aurreratu bezala. *El Paísek*, *El Correoren* kasuan bezala, Ekialde Hurbilean denbora zehatz batez kazetari freelance batekin lan egiten zuen, hilean tarifa «finko» bat eskainiz: «Kairon zegoen kazetari batekin akordio bat geneukan, hilero zenbateko zehatz bat ordaintzen genion» (K2, komunikazio pertsonala).

Amaitzeko, piezen tarifen inguruan hitz egiteko orduan, gehienek azpimarratu dute arazo konfidentzialengatik ezin dutela daturik eman. Hala ere, datu zehatzak aipatu dituztenen artean, espainiar hedabideetan idatzizko pieza batengatik 60-175 € bitartean ordaintzen dira. Hala ere, weberako egiten den informaziorako tarifak baxuagoak dira kasu batzuetan: «Gaur egun lan asko egiten da weba elikatzeko eta lan hori gutxien ordaintzen dena da. Piezako 30-50 € bitartean ordaintzen dira» (K1, komunikazio pertsonala).

6. Ondorioak eta eztabaida

Euskal hedabideetan bereziki, gai lokalek nazioarteko gaiak baino indar gehiago izaten jarraitzen dute. Hedabide batzuek, aldiz, «harrotasunez» defendatzen dute nazioarteko informazioaren jarraipena, nahiz eta gatazka-gaietan zentratuz gero, horren jarraipena, askotan, «breaking news»-en menpe dagoela onartu. Horretaz gain, nazioarteko arduradunek aipatu izan dute informazioa hautatzeko ordan, «hurbiltasun kriterio» bati jarraitzen zaiola, irakurleen interesei begira. Horri lotuta, bai euskal hedabideek zein espainiar hedabideek nazioarteko informazioa zein gatazkei buruzko informazioa testuinguruaren arabera kokatu eta irakurlearen interesen arabera lantzen dutela ondoriozta daiteke, kasuan kasu. Horrek erakusten du hedabideak publikoaren sentsibilitate eta tradizioak kontuan hartzen dituela, zeinak hedabidearen politikan eragina duen: «Produktuari orientazioa ematek tokiko irakurleen informazio-beharretara igarotzea» (Rivas, García eta González, 2020, 19. or.).

Bestalde, Udaberri Arabiarraren jarraipenak lehendik antzematen ziren errutinak ziurtatu ditu euskal hedabideetan: kazetari freelanceen egonkortzea nazioarteko gatazken inguruko jarraipenetan. Espainiar hedabideetan, aldiz, kazetari freelanceen presentzia nabarmena den arren, badaude hedabide batzuk korrespontsal eta berriemaile bereziekin mantentzen direnak. Kazetari freelancearen figurak, bereziki, modu zuzenean eragiten du ofizioaren prekarizazioan, gatazka-gune batean behar bezala jarripen informatibo bat egiteko zailtasun gehiago izateaz gain, baliabide urriagoak izan ditzaketelako (Oller *et al.*, 2020) eta profesionalen beren lan- eta segurtasun-baldintzak desegin (Unda, Iturregui eta Cantalapiedra, 2022).

Kazetari freelancearen zailtasun sistematikoak ezagutzeko, nahikoa da jakitea, 2022ra arte, beren kontura aritzen ziren profesionalek alta eman behar zutela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) artisau eta eskultoreen epigrafean (Puerta, 2022). Hala ere, azken urtean, legalki egoera hau aldatzeko helburua dagoela dirudi:

2022ko urtarrilaren 1ean, 863 epigrafea sartu zen indarrean, JEZaren bigarren sekzioko 86. multzoaren barruan. Bertan, kazetariak eta komunikatzaile autonomoak aitortzen dira Zerga Agentziaren jarduera ekonomikoen eroldan. Teorian, horrek etorkizunean kazetari autonomoaren errealtatea ikusarazten lagunduko du, bai eta administrazio publikoek haren figura babesteko legegintza-neurriak har ditzaten ere. Praktikan, eta oraingoz, beren konturako kazetariak PFEZ bera, BEZ bera eta autonomoen kuota bera ordaindu behar izaten jarraitzen dute, eta beren lanbidearen jardunetik eratorritako gastu asko desgrabatu ezinik jarraitzen dute (Puerta, 2022, 109. or.).

Horri lotuta, EAEko hedabide nagusiek zein Espainiako hedabide nagusiek gatazken jarraipena egiten duten kazetariak, bereziki, kazetari freelanceei eskaintzen dizkieten baldintzak oso eskasak dira. Horretaz gain, bada kasu bietan errepikatzen den figura bat: autonomo faltsuaren figura, ofizioaren prekarizazioaren adierazle indartsunetarikoa bat. Figura hau 2008ko krisiaren ondorioz orokortzen hasi bazen ere, gaur egun hedabide mota askotan (telebistan, irratan, idatzizko prentsan, etab.) presente dagoen errealtate bat da, publikoetan zein pribatuetan (Herrero, 2020).

Hala ere, euskal zein espainiar hedabide publikoetan ez da kazetari freelanceen ezta autonomo faltsuaren figura antzematen.

7. Bibliografia

- Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (2011). *Marco general de los medios en España*. <https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2011/01/marco11.pdf>
- Allan, S., eta Zelizer, B. (argtz.) (2004). *Reporting war: Journalism in wartime*. Routledge.
- APM Asociación de la Prensa de Madrid (2021). *Informe anual de la profesión periodística*. https://www.apmadrid.es/wp-content/uploads/2022/10/Informe-anual-Profesion-Periodistica-2021_web_lite.pdf
- Argiz Acuña, Á. (2006). De mercenarios a héroes: un recorrido por la historia del periodismo Freelance. *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 12, 27-43.
- Asal, V., Krain, M., Murdie, A., eta Kennedy, B. (2018). Killing the messenger: Regime type as a determinant of journalist killing, 1992-2008. *Foreign Policy Analysis*, 14(1), 24-43.
- Aubert, C. (2007). La division du travail au sein d'un organe de presse : modes et usages des formes d'emploi. *Documents du travail du Centre d'Economie de la Sorbonne*, Centre National de la Recherche Scientifique, 1-16.
- Cantalapiedra, M.J., Coca, C., eta Bezunartea, O. (2000). La situación laboral de los periodistas vascos. *Zer*, 5(9).
- Comisión Nacional de Trabajadores (2017). *Periodismo en la UVI Las precarias condiciones de los colaboradores internacionales de medios españoles*. http://graficasmadrid.cnt.es/wp-content/uploads/2017/03/Periodismoenlauvi_PRINT.pdf
- Comisión Nacional de Trabajadores (2018). *Periodismo en la UVI La precariedad en las colaboraciones nacionales*. http://graficasmadrid.cnt.es/wp-content/uploads/2018/06/Colaboraciones_nacionales2018.pdf
- Cushion, S. (2007). Rich media, poor journalists: journalists' salaries. *Journalism Practice*, 1(1), 120-129.
- Del Paso Gallego, A. C. (2016). *Rol de las mujeres periodistas españolas en la cobertura de conflictos armados* (doktorego-tesia). Universidad Complutense de Madrid.
- Deuze, M., eta Witschge, T. (2018). Beyond journalism: Theorizing the transformation of journalism. *Journalism*, 19(2), 165-181.
- Díaz-Noci, J., Meso, K., Larrondo-Urreta, A., Salaverría-Aliaga, R., eta Sadaba-Chalezquer, M.R. (2010). Presencia y uso de internet en las redacciones de los diarios regionales vascos y navarros. *Mediatika*, 12, 301-319.
- Fernández, R. (1997). Communication workers in Spain: The reward of appearance. *Communication Review*, 2(3), 381-393.
- Gallardo, C., eta De la Quintana, A. (2012). La Prevención de Riesgos en los Corresponsales de Guerra. *Actas – IV Congreso Internacional Latina de Comunicación Social – IV CILCS*, Universidad de la Laguna, 1-12.
- Großhans, E., eta Rau, H. (2009). Analysis of self-conception and labour conditions of business journalists working for European media. *Conference Papers-International Communication Association*, 1-15.
- Gutiérrez-Cuesta, J (2021). *La precariedad en el periodismo: el colaborador en la prensa de Bizkaia*, (doktorego-tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hanusch, F. (2015). A different breed altogether? Distinctions between local and metropolitan journalism cultures. *Journalism Studies*, 16(6), 816-833.

- Harris, J., eta Williams, K. (2018). *Reporting war and conflict*. Routledge.
- Herrero Alvarez, A. (2020). *La precariedad laboral en los medios de comunicación. Los falsos autónomos* (gradu-amaierako lana). Universidad de la Laguna.
- Hesmondhalgh, D. (2015). *Exploitation and Media Labour. The Routledge Companion to Labor and Media*. Routledge.
- Hughes, S.L., eta Márquez Ramírez, M. (2017). Examining the practices that Mexican journalists employ to reduce risk in a context of violence. *International Journal of Communication*, 11, 499-521.
- Iturregui Mardaras, L. (2011). *Origen y evolución de la relación entre periodistas y militares en operaciones. El sistema de empotrados Irak 2003* (doktorego-tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Lavín De las Heras, E. (2015). *Análisis de la influencia de las tecnologías de información a los corresponsales de guerra españoles* (doktorego-tesia). Universidad Camilo José Cela.
- Lohner, J., Neverla, I., eta Banjac, S. (2017). Structural working conditions of journalism in Egypt, Kenya, Serbia and South Africa: Empirical findings from interviews with journalists reporting on democratisation conflicts. In Katy Parry (argtz.), *Media, Conflict and Democratisation (MeCoDEM)* (1-20. or.). University of Leeds.
- Lqbal, Y.W., eta Ullah, Q.F. (2013). Working conditions of journalists in district Swat at the end of militancy. *J Mass Communicat Journalism*, 3(160), 2.
- Marta-Lazo, C., eta García-Idiákez, M. (2014). El uso profesional de la red social Twitter en la redacción del diario español El País. *Palabra clave*, 17(2), 353-377.
- Martínez Sanz, R., eta Durántez Stolle, P. (2019). El ejercicio del periodismo de investigación en España. La percepción de su estado actual. *Revista Latina de Comunicación Social*, (74), 94.
- Mathisen, B.R. (2017). Entrepreneurs and idealists: Freelance journalists at the intersection of autonomy and constraints. *Journalism Practice*, 11(7), 909-924.
- Mathisen, B.R. (2019). Ethical boundaries among freelance journalists. *Journalism Practice*, 13(6), 639-656.
- Moreno, R. (2010). ¿Informamos adecuadamente sobre afganistán? *Cuadernos De Periodistas: Revista De La Asociación De La Prensa De Madrid*, (21), 46-58.
- Oller Alonso M., Blanco Herrero D., Splendore S., eta Arcila Calderón C. (2021). Migración y medios de comunicación. Perspectiva de los periodistas especializados en España. *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 27(1), 205-228.
- Puerta, C. (2022). Una conversación sobre periodismo 'freelance' y su sostenibilidad. *Cuadernos de periodistas: revista de la Asociación de la Prensa de Madrid*, 44, 101-117.
- Rivas-de-Roca, R., García-Gordillo, M., & González, F.J.C. (2020). La construcción del periodismo "localizado" en medios digitales europeos. Estudio de casos. *Revista Latina de Comunicación Social*, 75, 1-26.
- Roses, S. (2011). Journalists' salary structure in Spain during the crisis. *Revista Latina de Comunicación Social*, 66, 178-209.
- Salamon, E. (2018). Freelance journalists' rights, contracts, labor organizing, and digital resistance. In Scott A. Eldridge II, Bob Franklin (argtz.), *The Routledge handbook of developments in digital journalism studies*, Routledge, 186-197.
- Soengas Pérez, X., Rodríguez Vázquez, A.I., eta Abuín Vences, N. (2014). The professional situation of Spanish journalists: the repercussions of the crisis on the media. *Revista Latina de Comunicación Social*, 69, 104-124.
- Taylor, S.J., eta Bogdan, R. (1987). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Paidós.

- Tumber, H. (2006). The fear of living dangerously: Journalists who report on conflict. *International relations*, 20(4), 439-451.
- Tumber, H., eta Webster, F. (2006). *Journalists under fire: Information war and journalistic practices*. Sage.
- Unda-Endemaño, A., Iturregui-Mardaras, L., eta Cantalapiedra-González, M.J. (2022). La tribu sin suerte. Transformaciones y retos del periodismo de conflicto en España. *Cuadernos.Info*, 53, 1-21.
- Walters, E., Warren C., eta Dobbie, M. (2006). The Changing Nature of Work: A Global Survey and Case Study of Atypical Work in the Media Industry. *Research on atypical work in the media industry*, International Federation of Journalists, 1-31.

